BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1437

EBAZPENA, 2008ko maiatzaren 8koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Unilever Foods España, S.A. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematen diona, margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzeko eta olioak eta landare-koipeak fintzeko, Leioako udalerrian (Bizkaia).

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 21ean, Unilever Foods España, S.A. enpresak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Leioako udalerrian (Bizkaia) margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzeko eta olioak eta landare-koipeak fintzeko. Eskaerarekin batera, Leioako Udalak 2006ko otsailaren 14an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen: «Ingurumeneko baimen bateraturako eskaera. Proiektu teknikoa eta eranskinak (1. eta 2. liburukiak)».

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Unilever Foods España, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako 1947ko ekainaren 4ko baimena zuen, eta ondorengo aldaketak eta zabaltzeak, jateko koipeak (margarinak eta bestelakoak) fabrikatzeko. Era berean, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: kolektorera industria-urak eta ur beltzak isurtzeko baimena, 2006ko abenduaren 26koa; lehorretik itsasora hozte-urak isurtzeko baimena, 2007ko urtarrilaren 8koa, eta hondakin arriskutsuen ekoizleen baimena, 2006ko maiatzaren 5ekoa, isurketen, hondakinen edo atmosferaren arloan, hurrenez hurren, indarrean den araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Leioako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kontsultatu zien.

2007ko martxoaren 19an eta 2007ko irailaren 28an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2008ko urtarrilaren 22an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2008ko urtarrilaren 24an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Unilever Foods España, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko otsailaren 11n. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen otsailaren 17an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 25ean Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Leioako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 17an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Unilever Foods España, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko apirilaren 29an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen hartan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren aurreikusitako ingurumeneko baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi dira. Unilever Foods España, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak sortzeko baimena; hondakin ez-arriskutsuen ekoizleen erregistroko inskripzioa; kolektorera isurtzeko eta lehorretik itsasora isurtzeko baimena, eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Aginduzko txostenen bidez, bestelako administrazio eta erakunde eskudunen parte-hartzea azaldu beharko du espedienteak.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Unilever Foods España, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, espedientean jasotzen den emaitzarekin; horiez gain, espedientean sartu dira Leioako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzeko den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak. Bereziki, agiri hauen edukia hartu da kontuan: Elikadura-, edari- eta esne-industriei buruzko BREF agiria (Reference Document on Best Available Techniques in the Food, Drink and Milk Industries), 2006ko abuztukoa, Europako Batzordearena, eta «Landarekien sektoreko Espainiako teknika erabilgarri onenen gidaliburua» agiria, Ingurumen Ministerioak argitaratua. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua. Horren bidez, ontzien eta ontzi-hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Erregelamendua onartzen da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Unilever Foods España, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 16an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Leioako udalerriko (Bizkaia) Autonomia etorbideko 4an eta IFK: A-48974976 duen Unilever Foods España, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzeko eta olioak eta landare-koipeak fintzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 9.1.b.2 kategorian sartuta dago, «Landare-lehengaia erabiliz elikadura-produktuen fabrikaziora bideratutako tratamendurako eta eraldaketarako instalazioak, egunean 300 tona produktu bukatutik gora ekoizteko ahalmena dutenak».

Unilever Foods España, S.A. enpresaren jarduera margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzea eta olioak eta landare-koipeak fintzea da. Instalazioak Leioako udalerriko Lamiako gunean daude, eta iparraldean Bilboko metroaren Lamiako geltokia dago, hegoaldean Nerbioi-Ibaizabal itsasadarra, ekialdean Lamiako ibarra (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hondakin-uren ponpatze-estazio berria dagoen tokia), eta mendebaldean Faes Farma enpresa. Guztira 72.548 m^2-ko

azalera okupatzen du, eta horietatik 40.000 m^2 azalera eraikiari dagozkio. Instalazioaren UTM koordenatuak hauek dira: X: 499787,42; Y: 479641418,67.

Unilever Foods España, S.A. enpresak 237.099 t/urteko ekoizte-ahalmena du. 2005 ekitaldiari buruzko guztizko kontsumoak 77.375 t/urte lehengai eta osagarri (batik bat olioak, koipeak, arrautza eta osagai minoritarioak) eta 1.595.212 m^3 ur dira (% 69,4 bertako bilketakoa, hozteko eta suteen aurkako sistemetarako; eta % 30,6 Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hornidura-sarekoa, industria-prozesuetarako, garbiketetarako, erabilera sanitariorako eta produktuari berari gehitzeko).

Guztizko energia-kontsumoa 53.454.900 kwh-koa da, eta energia-iturriak elektrizitatea (% 28,4, ekipoetan eta makinetan, argitan eta bulegoan erabilia), gas naturala (% 69,9, Loos eta Geka galdaretan erabilia), eta gasolioa (% 1,7, Steambloc galdaran erabilia).

Fabrikatutako azken produktuaren tipologiaren arabera definitutako hiru produkzio-lerro nagusi ditu enpresak:

● Fintze-lerroa: gantz-azidoak, desodorizatuak eta desodorizatu-nahasketak beste produktu batzuk ekoizteko lehengai gisa ekoiztea. Fintze-prozesuaren etapa nagusiak hauek dira: lehengaiak hartu eta biltegiratzea, olioak fintzea (produktu kimikoak gehituz neutralizatzea, absortzioz zuritzea, gantz-azidoak berreskuratu eta biltegiratzea), eragiketa osagarriak (hidrogenazioa, interesterifikazioa eta argizari-kentzea), olioak nahastea, desodorizatzea (konposatu organiko hegazkorrak destilazioz ezabatzea, eta partikulak iragazketaz) eta tangetan biltegiratzea.

● Margarina-lerroa: margarina eta koipeen fabrikazioari lotua. Prozesu honek ekoizte-etapa hauek ditu: fase urtsua prestatzea (osagaiak uretan disolbatuz prestatzea, tratamendu termikoa, nahastea eta biltegiratzea), fase koipetsua prestatzea (osagaiak oliotan disolbatuz prestatzea eta irabiatuta biltegiratzea), margarina-fabrikazioa (bi faseak nahastea, pasteurizatzea, kristalizatzea eta iragaztea), ontziratzea eta etiketatzea.

● Maionesa-lerroa: maionesa eta saltsen fabrikazioari lotua. Horri lotutako ekoizpen-etapa nagusiak hauek dira: fase urtsua prestatzea (osagaiak uretan disolbatzea, pasteurizatzea, hoztea eta iragaztea), arrautza biltegiratzea eta egonkortzea, iragaztea eta olio findua epeltzea, produktu emultsionatuak aurreemultsionatzea eta emultsionatzea, eta faseak produktu ez-emultsionatuetan nahastea, ontziratzea eta azken biltegiratzea.

Unilever Foods España, S.A. enpresak garatzen duen jarduerak isuri zarratuak sortzen ditu hiru galdaratan (Loos galdara, Geka galdara eta Stambloc galdara); lehen biek gas naturala kontsumitzen dute, eta azkenak, gasolioa. Gainera, jarduerak isuri barreiatuak sortzen ditu fintze-sailean, hauts-materialak biltegiratzeko siloetan (azukre-silo 1 eta 2 lur-silo) eta sukaldeko erauzketa-sisteman. Biltegiratzeko siloek mahuka-iragazkiak dituzte isuri partikulatuak atxikitzeko, eta fintze-sailak korrontearen kontrako gas-garbigailuak ditu olio-tratamenduan sortutako usainak ezabatzeko.

Instalazioan sortutako hondakin-uren artean prozesuko urak daude. Tratamendu fisiko eta kimikoko sistema batean araztu ondoren, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera husten dira isurtze-puntu bakar batetik. Prozesuko urekin batera, isurtze-puntu beretik instalazioan sortutako ur sanitario gehienak, galdaren purgak eta erretxinak birsortzeko urak isurtzen dira. Gainerako ur sanitarioak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera husten dira beste bi isurtze-puntutatik.

Bestetik, hozteko eta kondentsatzeko prozesuetarako ur gazia erabiltzen da, eta behar duten prozesuetan erabili ondoren, Nerbioi itsasadarrera itzultzen da, dekantagailu batetik igaro ostean.

Azkenik, instalazioko euri-urek ez dute kutsadurarik arrastatzen, eta hortaz, Nerbioi itsasadarrera eramaten dira, aurrez tratatu gabe.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuak fintze-prozesukoak, margarina- eta koipe-fabrikaziokoak, maionesa- eta saltsa-fabrikaziokoak, hondakin-uren tratamendukoak eta zenbait jardueratakoak (mantentze-lanak, garbiketa, laborategia edo zerbitzu medikoa) dira. Bestetik, sortutako hondakin ez-arriskutsuen artean lurrak eta lohiak daude.

Unilever Foods España, S.A. enpresak TEOak eta antzeko neurriak ditu ezarrita, bai orokorrak (ingurumena kudeatzeko sistema, langile-prestakuntza, ekipoak diseinatzea, hautatzea eta mantentze-lanak egitea, kontsumoak, isuriak, isurketak eta hondakinak prebenitzea eta murriztea, prozesuko parametroak optimizatzea edo efluenteak bereiz bideratzea), bai nekazaritzako elikagaien arlorako berariazkoak: materialak soltean erostea, CIP garbiketa-sistema, hondakin-urak tratatzeko tratamendu fisiko eta kimikoa duen araztegia, betetze-sistema automatikoak, gainbetetzeko detektagailuak, ekipoen isolamendu termikoa, garbiketako gaiak edo plaka-trukagailuak hautatzea, besteak beste. Halaber, landare-olio eta –koipeetarako azpisektoreko TEOen artean, desodorizazio-sistema azpimarratu behar da. Horiek guztiak TEOtzat jotzen dira Europako Batzordearen 2006ko abuztuko «Elikadura-, edari- eta esne-industrietarako erreferentziako agirian» (Reference Document on Best Available Techniques in the Food, Drink and Milk Industries).

Bigarrena.– Unilever Foods España, S.A. enpresak Leioako udalerrian margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzeko eta olioak eta jateko landare-koipeak fintzeko jarduerari ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Kosten uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 88.4 artikuluak xedatutakoa betez eta aipatu legearen 85. artikuluan eta onartuko den garapen-araudian zehaztutako irizpideak jarraituz, ebazpen honetako C.1.2.5 atalak aipatzen duen isurketa-kanona zehaztu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak berme bat eskatu ahal izango dio Unilever Foods España, S.A. enpresari, ezarritako isurketa-baldintzak bete daitezen.

B) Unilever Foods España, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio ingurumen-arloan administrazioarekiko harremanen arduradunaren nortasuna, eta emandako datuen ondorengo edozein aldaketa.

C) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

C.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

C.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

C.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Unilever Foods España, S.A. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

C.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Unilever Foods España, S.A. enpresaren instalazioak ondoko fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Erregistro-liburuko izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa	Katalogazioa	Koordenatuak	
					Taldea	X	Y
01	48-3420-01	Loos lurrun-sorgailua (margarinak eta koipeak fabrikatzea eta maionesak eta saltsak fabrikatzea)	20	0.8	B	499.810	4.796.582
02	48-3420-02	Geka lurrun-sorgailua (fintzea)	20	0.45	C	499.756	4.796.478
03-D	48-3420-03	Steambloc lurrun-sorgailua (margarinak eta koipeak fabrikatzea eta maionesak eta saltsak fabrikatzea)	27	0.9	Foku ez-sistematikoa	499.807	4.796.587
04-D	48-3420-04	Findegi Saila (fintzea)	-	-	Foku ez-kutsagarria	-	-
05-D	48-3420-05	1. eta 2. Lur Siloko iragazkia hustea (fintzea)	-	-	Foku ez-sistematikoa	499.781	4.796.511
06-D	48-3420-06	Azukre Siloko iragazkia hustea (fintzea, margarinak eta koipeak fabrikatzea eta maionesak eta saltsak fabrikatzea)	-	-	Foku ez-sistematikoa	499.882	4.796.624
07-D	48-3420-07	Sukaldeko erauzpena	-	-	Foku ez-sistematikoa	-	-

05-D eta 06-D fokuen tximinien garaierak eta diametroak, eta 07-D fokuaren UTM koordenatuak adierazi beharko dira.

1. fokua legeztatzea («Loos» galdara) tximinien garaieraren kalkulua justifikatzen duen memoria bat aurkeztuz egin beharko da, urriaren 18ko 1073/2002 Errege Dekretuan, sufre oxidoaren, nitrogeno dioxidoaren, nitrogeno oxidoen, partikulen, berunaren, bentzenoaren eta karbono monoxidoaren balio-mugei dagokienez airearen kalitatea neurtu eta kudeatzeari buruzkoan, ezarritako isurtzeko muga-balioak betetzen direla bermatzearren, hondoko kutsaduraren egungo balioak kontuan hartuta.

C.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua - Loos lurrun-sorgailua	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
2. fokua – Geka lurrun-sorgailua	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm

Balio horiek baldintza hauei dagozkie: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

C.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isuri barreiatuak murriztearren, hauts-materialak biltegiratzeko silo guztiek partikulak atmosferara isurtzea saihestuko duten iragazkiak izango dituzte. Hauts-gaiak garraiatzeko uhal edo gailu oro behar bezala estalita egon edo estankoa izango da.

C.1.2.– Isurtzeko baldintzak.

C.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Olio eta koipe finduen fabrikazioa, margarina eta antzeko jateko koipeen fabrikazioa, eta espezie, saltsa eta gozagarrien elaborazioa.

Jarduera-taldea: Elikadura.

Mota-taldea-EJSN: 1-3-15.42/15.43/15.87.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industrialak	Neutralizazio-urak, argizari-kentzea eta desodorizatzea, galdaren purgak, lurruntze-kondentsadoreak eta iragazkiak garbitu eta erretxinak birsortu ondorengo garbiketa-urak	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorea	X: 499.710 Y: 4.796.391
2	Hoztea	Hozteko eta kondentsatzeko prozesuak	Nerbioi/Ibaizabal itsasadarra	X: 499.708 Y: 4.796.397

C.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: Industria-urak.

Urteko gehienezko bolumena	262.137 m^3/urte

b) 2. isurketa: Hozte-urak.

Urteko gehienezko bolumena	1.500.000 m^3/urte

C.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) 1. isurketa: Industria-urak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera doazen isurketei buruzko araudian agertzen diren mugak eta baldintzak bete behar ditu azken isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin.

b) 2. isurketa: hozte-urak.

Itsasora egiten diren isurketen ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	6 – 9
Guztizko solido esekiak (SST)	80 mg/l
Olio eta koipeak (O. eta K.)	20 mg/l
Tenperatura isurketa-puntutik 50 m-ra gehitzea	< 3 ºC

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

C.1.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Unilever Foods España, S.A. enpresak sortutako hondakin-uren arazketa-instalazioek edo neurri zuzentzaileek jarduketa hauek dituzte:

Gauzatutako jarduketak:

a) 1. isurketa: industria-urak.

20 m^3/h-ko ahalmeneko tratamendu fisiko eta kimikoko sistema bat ezartzea, ondorengo etapak dituena:

1.– Homogeneizazioa: airea jarraiki putz egitea eta irabiatzea, ur gordinak edozein puntutan ezaugarri berak izatea lortzearren.

2.– Koipegabetzea: koipe gehienak flotazioz ezabatzea, aire-ekarpen bidez. Koipe horiek gantz-azido gisa berreskuratzeko eta azpiproduktu gisa merkaturatzeko biltegiratzen dira.

3.– Koagulazioa eta malutapena: pH-a sosa gehituz igotzea, koagulatzaileak gehitzea partikulek urarekin duten afinitatea ezabatzeko, eta ondoren malutapen-ganberara aldatzea, malutatzaileak gehitzeko.

4.– Flotazioa: beste aire-ekarpen baten bidez, fase solidoa eta likidoa bereizten dira, eta solido esekiak gainazalera joaten dira. Ekipoak gainazaleko ekortze bat du (flotatzaileak biltzea) eta hondoko ekortzea eta purga (partikula trinkoak biltzea).

5.– Lohi-deshidratazioa: malutatzailea gehitzea, 4 m^3/h-ko tratatzeko ahalmeneko zentrifugadore horizontaletik igarotzea. Lohi deshidratatuak zaku batean isurtzen dira eta jarioa malutapen-ganberara itzultzen da.

6.– Neutralizazioa: bi ganbera daude pH-aren segidako jarraipena egiteko eta horren balioa produktu alkalinoak gehituz zuzentzeko.

b) 2. isurketa: Hozte-urak: fat-trap dekantagailu zirkular bat dago koipeak eta olioak dekantazio sinplez atxikitzeko.

Gauzatzeko dauden jarduketak:

a) 1. isurketa: Industria-urak.

● Tratamendu-lerroa handitzea, flotazioko DAF lerro berri bat instalatuz, industria-efluentea baldintzatzeko. Findegiko fluxua, eta olio eta koipeen tangetako eta zisternen deskargako atxikipen-kubetetako isurketa bertara desbideratuko dira.

b) 2. isurketa: Hozte-urak.

● 2008an zehar ordezko tratamenduei buruzko azterlan bat igorri beharko da, gutxienez alderdi hauek aztertzen dituena: alternatibak, alternatiben balorazio ekonomikoa, hartutako alternatiba justifikatzea, aurreikusitako errendimendua, burutzeko diseinua/oinarrizko proiektua eta burutze-epeak.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Unilever Foods España, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak

diren ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio. Kasu honetan, efluentea kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea:

a) 1. isurketa: industria-urak.

● Lagin-hargailu automatikoa.

● Erregistro grafikoa duten 5 pH-neurgailu jarraiki.

● Bi emari-neurgailu: bat homogeneizagailuaren irteeran eta bestea ur beltz + industria-efluenteen sarean.

b) 2. isurketa: Hozte-urak.

● Emari-neurgailu erregistratzaile totalizatzailea.

C.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Kostaldeen uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 85. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Unilever Foods España, S.A. enpresak margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzeko eta olioak eta landare-koipeak fintzeko burutzen duen isurketa baimendua kanon batez zergapetua egongo da, eta Uren Zuzendaritzak likidatuko du horren zenbatekoa zehaztu ondoren, artikulu horretan eta hori garatzeko onartzen den araudian ezarritako irizpideei jarraituz.

C.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta dai-

tezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Leioako Udalean.

C.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Hondakin uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Ur koipetsuak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R9//L9//C51//H14//A113//B0006.

– EHZ: 190813.

– Urtean sortutako kantitatea: 61.500 kilogramo 3 urtean behin.

Hutsa sortzeko prozesuko kondentsatuen andel dekantatzailea garbitzean sortzen dira; olioak eta koipeak ditu. Zuzenean erretiratzen da sortutako puntutik, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R9//L8//C51//H5/6//A113//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.500 kilogramo/urte.

Mantentze Lan Orokorren azpiprozesuan sortzen da, ekipoen eta instalazioen olioa birjartzean; erabilitako olio mineralak dira. Hondakin-biltegian hondakin horrentzako identifikatutako bidoian biltzen dira.

○ 2. hondakina: «Bateriak, pilak eta metagailuak».

– Identifikazioa: A48974976/4803420/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C11/16//H6//A113//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kilogramo/urte.

Mugikor, ordenagailu eramangarri, eta abarren pila agortuak birjartzean sortzen da, eta eraginkorragoa denez, elkartuta biltzen dira; merkurioa, kadmioa eta bestelako oxido metalikoak dituzten pilak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariazko eremuan.

○ 3. hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta merkurio lurrunezko lanparak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6//A113//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo/urte.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuan; merkurioa duten lanpara erabiliak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 4. hondakina: «Ekipo elektriko eta elektronikoak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A113//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 380 kilogramo/urte.

Ekipo elektrikoak eta/edo elektronikoak birjartzeko eragiketetan sortzen dira; baztertutako ekipo ofimatikoak dira. Hondakinarentzat identifikatutako eremuan biltzen da.

○ 5. hondakina: «PCB-a duten transformadoreak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q12//D13//S-L10//C32//H6/7//A802//B0019.

– EHZ: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Mantentze-lan Orokorrak azpiprozesuko hondakin gisa sortzen da. Zuzenean jasotzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 6. hondakina: «Halogenorik gabeko mekanizazioko emultsio eta disoluzioak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q8//R9//L9//C51//H5//A113//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 255 kilogramo/urte.

Taladrina erabiltzean hondakin gisa sortzen da Tailerra azpiprozesuko mekanizazio-eragiketetan; olio/ur emultsio bat da. Hondakin-biltegian hondakin horrentzako identifikatutako bidoian biltzen da.

○ 7. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez halogenatua».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b/5//A113//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 105 kilogramo/urte.

Tailerra azpiprozesuan piezak garbitzean disolbatzaile organiko ez-halogenatuak erabiltzean sortzen da; disolbatzaile organiko ez-halogenatuak dira. Zuzenean erretiratzen da sortutako puntutik, kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

○ 8. hondakina: «HA-ak izan dituzten beirazko ontziak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43/51//H6//A113//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 kilogramo/urte.

Laborategia azpiprozesuan erreaktiboak erabiltzearen ondorioz sortzen dira; hidrokarburoak eta konposatu aromatikoak izan dituzten beirazko ontziak dira. Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da, hondakin-biltegian.

○ 9. hondakina: «Disolbatzaile ez halogenatua».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/9.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41/43//H3b//A113//B0019.

– EHZ: 070604.

– Urtean sortutako kantitatea: 770 kilogramo/urte.

Laborategia azpiprozesuan disolbatzaile organiko ez-halogenatuak erabiltzean sortzen da; disolbatzaile organiko ez-halogenatuak dira. Hondakin-biltegian hondakin horrentzako identifikatutako bidoian biltzen da.

○ 10. hondakina: «OEK zehaztu ondorengo laborategiko hondakinak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/10.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L27//C3/23//H6/8//A113//B0019.

– EHZ: 160507.

– Urtean sortutako kantitatea: 180 kilogramo/urte.

Laborategia azpiprozesuan OEK zehaztearen ondorioz sortzen da; disoluzio azidoak eta kromo hexabalentea dira. Poteetan jasotzen da, hondakin bakoitzarentzat identifikatu den kutxa batean sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 11. hondakina: «II. motako hondakin biosanitarioak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/11.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15//S1//C35//H9//A113//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 4 kilogramo/urte.

Zerbitzu Medikoaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira. Edukiontzi hermetiko batean biltzen dira, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio kudeatzaile baimenduari.

○ 12. hondakina: «Paperezko/plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/12.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C23//H4//A113//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 46 kilogramo/urte.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; azido organikoak (zitrikoa, sorbikoa...) izan dituzten poltsak eta zakuak dira. Hondakin horrentzako identifikatutako kutxan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 13. hondakina: «HA-ak izan dituzten plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/13.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43/51//H5//A113//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 3.200 kilogramo/urte.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; aromak, azido organikoak eta laborategiko erreaktiboak izan dituzten plastikozko ontziak dira. Hondakin-biltegian hondakin horrentzako identifikatutako big-bagetan biltzen da.

○ 14. hondakina: «HA-ak izan dituzten metalezko ontziak».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/14.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43/51//H5//A113//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 kilogramo/urte.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; aromak eta azido organikoak izan dituzten metalezko ontziak dira. Hondakin horrentzako identifikatutako kutxan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 15. hondakina: «Aerosol teknikoa».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/15.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43/51//H3b//A113//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 kilogramo/urte.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hondakin-biltegian hondakin horrentzako identifikatutako poltsan biltzen da.

○ 16. hondakina: «Material xurgatzailea».

– Identifikazioa: A48974976/483420/2/16-

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C51//H5//A113//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.500 kilogramo/urte.

Xurgatzaileak eta ehunkiak biltzean sortzen da; hidrokarburoz bustitako trapuak eta material xurgatzailea dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) «Hondakin Koipetsuak», «Ur Koipetsuak» eta «Disolbatzaile Organiko ez Halogenatua» hondakinak instalazioan sortzen diren andeletatik zuzenean bildu beharko dira, aurrez ontziratu edo biltegiratu gabe, kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

f) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

g) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakteriza-

zio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Unilever Foods España, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) Unilever Foods España, S.A. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

k) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Unilever Foods España, S.A. enpresak.

l) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, olioaren hondakinen kasuan, Unilever Foods España, S.A. enpresak bere ezaugarriak direla-eta olioari dagozkionak eta euren kudeaketa aipatutako Dekretuak arautzen dituenak, hondakin horien ezaugarri fisiko-kimikoak egiaztatu beharko ditu tratamendua jaso dezaten kudeatzaile baimenduari bidali aurretik. Aipatu Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, egiaztapena ez da nahitaezkoa izango Unilever Foods España, S.A. enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan baimendutako transferentzia-estazio batera eramanez gero. Kasu horretan, transferentzia-estazio horren titularrak bere gain hartuko du betebeharra, azken kudeatzaileari erabilitako olioa bidali aurretik.

m) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Errege Dekretu horren baitan, hondakin arriskutsuak diren ekipoak eta udal-erakundeei izaera bera edo antzekoa duten hiri-hondakinekin batera kudea daitezen entregatzen zaizkienak, h eta i ataletako neurriak betetzeaz salbuetsita egongo dira.

n) Unilever Foods España, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Unilever Foods España, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

o) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Unilever Foods España, S.A. enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu

eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

p) Unilever Foods España, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

q) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak (prozesuan, horiek tratatzeko, berrerabilitako hondakin koipetsuak barne), sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

r) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Unilever Foods España, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

s) Aurreko g) eta h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), p) eta q) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

t) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Unilever Foods España, S.A. enpresak 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

C.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Papera eta kartoia	200101	Zerbitzu Orokorrak	160,84 t
Kartoizko plantxak	200101	Zerbitzu Orokorrak	463,36 t
Plastikozko fardelak	200139	Zerbitzu Orokorrak	41,148 t
Plastikozko paketatzea	200139	Zerbitzu Orokorrak	22,24 t
Txatarra	200140	Zerbitzu Orokorrak	103,94 t
Zura/palet hautsiak	200138	Zerbitzu Orokorrak	77,74 t
Paletak	200138	Zerbitzu Orokorrak	262,86 t
Beira	200102	Zerbitzu Orokorrak	18,30 t
Obra-hondakinak	170107	Zerbitzu Orokorrak	190,10 t
Nikelezko katalizatzaile erabilia	160803	Hidrogenazioa	19,68 t
Lohiak	020305	Araztegia	33,198 t
Lurrak	020399	Olio-fintzea	772,581 t

a) Nikelezko Katalizatzaile erabiliaren kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakin hori arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako C.1.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Unilever Foods España, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta g) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

C.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Unilever Foods España, S.A. enpresak lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

C.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C.1.6.– Usainei buruzko baldintzak.

Korrontearen kontrako gas-garbigailuak daude, findegi-sailean burutzen den olio-tratamenduari lotutako usainak murriztearren.

D) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Unilever Foods España, S.A. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrol mota	Kontrolen maiztasuna
01	48-3420-01	Loos lurrun-sorgailua	Karbono monoxidoa (CO)	Kanpokoa (KEB)	3 urte
			Nitrogeno-oxidoak (NO_x), NO_2 gisa neurtuak		
02	48-3420-02	Geka lurrun-sorgailua	Karbono monoxidoa (CO)	Kanpokoa (KEB)	5 urte
			Nitrogeno-oxidoak (NO_x), NO_2 gisa neurtuak		
04-D	48-3420-04	Findegi-saila	KOG	Kanpokoa (KEB)	

b) Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Kontrol Erakunde Baimendu (KEB) batek egin behar ditu (gutxienez, ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

D.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotua erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egin diren neurketen emaitzak, sustatzaileak (autokontrola) zein KEBek

egindakoak, mantentze-eragiketak, garbiketa, aldiroko berrikuspenak, matxurengatiko geldialdiak, egiaztapenak, edozein motako gertaerak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta eta ingurumen-ikuskarien eskura egongo dira.

D.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Unilever Foods España, S.A. enpresak isuritako uren kontrola egingo du, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egindakoen mende ez dauden analisi hauen bidez:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Industria-urak	pH-a, SE, T, O. eta K. (min.), O. eta K. (landare- eta animalia-jatorrikoak) sulfuroak, sulfatoak, zianuroak, N eras., N-NH3, As, Cd, Cr, Cu, Fe, Ni, Pb, Zn, Hg, Ag, fenolak, toxikotasuna	Aldizka	Kanpokoa (BBUP)
		pH-a, tenperatura, emaria, OEK, O. eta K., SE, sulfatoak	Egunerokoa	Autokontrola
2	Hozte-urak	Isurketa-bolumena	Hilerokoa	Autokontrola
		pH-a, guztizko solido esekiak (SST), olioak eta koipeak (O. eta K.), tenperatura (T)	Sei hilekoa	Kanpokoa
		pH-a, guztizko solido esekiak (SST), olioak eta koipeak (O. eta K.), tenperatura (T)	Egunerokoa	Autokontrola

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, 0. atalean adierazitako parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

D.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Gai-kontsumoa/ekoizpena	t/t
Ur-kontsumoa/ekoizpena	l/t
Energia elektrikoaren kontsumoa / ekoizpena	KWh/t
Guztizko energia-kontsumoa / ekoizpena	KWh/t

Adierazlea	Unitatea
Sortutako isurketen bolumena / ekoizpena	m^3/t
Isurketen karga organikoa / ekoizpena	kg OEK/t
Isurketen solido esekien karga / ekoizpena	kg SST/t
Isurketen olio eta koipeen karga / ekoizpena	kg O. eta K./t
Sortutako hondakin arriskutsuak / ekoizpena	kg/t
Sortutako hondakin ez-arriskutsuak / ekoizpena	t/t
Sortutako ontzi-hondakinak / kontsumitutako produktu ontziratuen kopurua	kg/kg

D.4.– Zarataren kontrola.

Unilever Foods España, S.A. enpresak kanpoko baldintza akustikoak kontrolatuko ditu, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan, hiru urtean behin enpresako langileek egingo dituzten neurketen bidez, hartu diren edo lehendik zeuden neurri teknikoak bermatzeko, baita aurkeztutako agirietan adierazitako fokurik garrantzitsuenen zaraten eragin negatiboak murrizteko ere.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako D.6.– atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

D.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

D.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztuen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

E) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

E.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako hileko, sei hileko edo urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

E.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (15.4 epigrafea «Landare- eta animalia-jatorriko koipe eta olioen fabrikazioa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua (3.2 artikulua «urtean martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuan, substantzia berrien jakinarazpenari eta substantzia arriskutsuen sailkatze, ontziratze eta etiketa ipintzeari buruzko Arautegia onartzen duenean, jasotako 10 tonatik gora substantzia bat edo gehiago ekoizten, maneiatzen edo biltegiratzen dituzten enpresak»). Hori dela-eta, Unilever Foods España, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

E.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu horretan kutsadura atmosferikoa prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen eta kontrolen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Olioak, erregaiak, azido fosforikoa, azido sulfurikoa, sodio hipokloritoa, amoniakoa, detergenteak, disolbatzaileak, produktu korrosiboak bezalako gaiak, eta fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragaziko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak biltegiratzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira. Iragazki horiek mantentze-lan jarraikiak izango dituzte balizko akatsak, eta hala badagokio, partikula-isuriak detektatzearren.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

k) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

l) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

m) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

n) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

o) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

p) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

q) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Ebazpen honen C.1.4 atalean ezarritako jarduerez gain, gasolioa biltegiratu eta manipulatzeko instalazioak behar bezala isolatuko dira haustura, ustekabeko gainezkaldi, eta abarrengatik gerta daitezkeen jarioak atxikitzeko.

Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna, eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

r) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isurketa, isurtzeko muga-balioak gainditzea, gai arriskutsuak isurtzea, sutea, edo ingurumena babesteko elementuen jardunean edo osotasunean eragin dezakeen edozer), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

s) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketaren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gainditu badira, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

t) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

G) Urtean behin Unilever Foods España, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi ziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako

erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

H) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

I) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Proiektua aldatu edo zabaldu nahi izanez gero, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Testu Bateginari buruzko urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, arau horren II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B) (Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruzko datuak), C.1.1.2 (tximiniaren kalkuluak justifikatzeko memoria); C.1.2.4 (Arazteko eta husteko instalazioak), C.1.3.1.g) (sortutako hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak), C.1.3.2 d). (Sortutako hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiriak), C.1.3.1.q) (Sortutako hondakin arriskutsuak kontrolatzeko erregistro-eredua) eta C.1.3.2.f) (Sortutako hondakin arriskutsuak tratatzeko erregistro-eredua), C.1.4 (PCB izatearen adierazpena), C.1.4 (EHZen ispilu-sarrera duten hondakinen karakterizazioa), C.1.4 (Lurzorua babesteko baldintzak), D.1 (Isuri atmosferikoen neurketak, KEB txostenak) D.1.1 (Isuri atmosferikoen erregistro-eredua), D.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina), D.4 (Zarataren kontrola), E.1 (Geldialdi programatuetan sortutako isuri eta hondakinen balioespena), E.3.a) eta b) (Mantentze-lanen eskuliburua, Ikuskapen eta kontrolerako programa), E.3.f) (Biltegiratzeko ziurtagirien egiaztapena), E.3.h) (Larrialdi-egoeretarako material-zerrenda), E.3.j) (Kubetak husteko protokoloa) eta E.3.t) (Suteen kontrako araudia).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetako baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Unilever Foods España, S.A. enpresak ebazpen honen xede den margarinak, maionesak eta saltsak fabrikatzeko eta olioak eta landare-koipeak fintzeko jardueran titularta-sun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Unilever Foods España, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Unilever Foods España, S.A. enpresari, Leioako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 8a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.